

ALKATEAREN PROPOSAMENA

Izaro Elorza Arregui andrea, Oñatiko Udaleko alkate-presidentea, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.

Gaia: Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024: dirulaguntzen zuriketa eta likidazioa

Oscar Carrascal Gonzalezek (Kirol teknikariak eta batzordeko idazkariak) abenduak 18an egindako txostenean (CSV zkia: ESKU455fbc94-b84d-4b89-a318-68037eb066de) honako PROPOSAMENA egin zuela:

Espediente zk.: 2024ZDK00007

Interesduna: OÑATIKO UDALA

Gaia: Oñatiko kirol elkarte eta taldeei dirulaguntzak 2024

Sarrera erregistroa: 0000/000000

Gertakariak:

Lehenengoa.-

Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 29an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: kirol arloko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartzea. Ondorioz, bi dirulaguntza lerro ezberdinetan dirulaguntza eskaerak egiteko deialdiak abiarazi ziren:

- 1.- Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak
- 2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak

Bigarrena.-

Udal kirol batzordeak, eskaerak jasotzeko deialdia egin zuen, eta diru-laguntzak emateko lehiaketa prozesu irekia abiarazi. Eskaerak egiteko epea apirilaren 13an amaitu zen, guztira herriko hamabost kirol talde eta elkartek dirulaguntza eskaera egin dutelarik.

Hirugarrena.-

Udal Tokiko Gobernu Batzordeak 2024. urteko ekainaren 6an eta 12an egindako bilkuretan esleitu zituen kirol arloko dirulaguntzak, eta esleipenarekin bat esleitutako dirulaguntzen lehen zatia ordaindu zien Udalak herriko kirol elkarte eta taldeei.

Laugarrena.-

Kirol elkarte eta taldeek, dirulaguntzetako oinarrietan jaso bezala, 2024ko abenduaren 1era arteko epea izan dute dirulaguntzen zuriketa egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkezteko. Horrela bada, dokumentazioa aurkeztu dute herriko kirol eragile gehienek.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.-

Honako kirol ekintzak antolatzen dituzte elkarte eta taldeek zuzen aurkeztu dute dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Herriko Futbol Txapelketa
- Oñatiko Mendi Martxa

- Orientazio lasterketako kirol eskola
- Pago Uso arrantza eta hezi elkarte
- Herriko Pilota txapelketa

Bigarrenena.-

“Burrunda faktoria” eta Andarto kirol elkarteek ez dute dirulaguntzen oinarrietan eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztu.

Hirugarrena.-

“San Silvestre herri-lasterketa”, “Gabonetako kuadrilen arteko saskibalo txapelketa” eta “Gabonetako futbito txapelketa” kirol ekintzen antolatzaileek ez dute aurkeztu dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa, jarduera horiek urteko azken egunetan egiten baitira.

Proposamena:

Zubikoa kiroldegiko zuzendariak hasitako prozedura aztertu da, eta honako proposamena egiten dio Udal kirol batzordeak Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.-

“Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako dirulaguntzak” dirulaguntza lerroari dagokionez, honako ordainketa egitea dirulaguntza likidatzeko:

Kod.	KIROL ELKARTEA	KONTZEPTUA	ONARTUA (2.ordainketa)
1	Antxintxiketan-Orientazio Eskola	Orokorra	351.74 €
2	Andarto	Materiala	0 €

“Andarto kirol elkarte”k urtarrikak 20ra arte epea izango du dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria aurkezteko Udal erregistroan.

Bigarrenena.-

“Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak” dirulaguntza lerroari dagokionez honako ordainketa egitea dirulaguntza likidatzeko:

Kod.	KIROL ELKARTEA	KONTZEPTUA	ONARTUA (2.ordainketa)
1	Herriko Pilota Txapelketa	Herriko Pilota Txapelketa	1000.00 €
3	Herriko Futbol Txapelketa	Herriko Futbol Txapelketa	185.00 €
4	Oñatiko Mendi Martxa	Oñatiko Mendi Martxa	970.00 €
5	Pago-Uso	Tiro txapelketak	271.25 €

Hirugarrena.-

“Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak” dirulaguntza lerroari dagokionez, honako beste kirol elkarte eta taldeek 2025. urteko urtarrikaren 20era arteko epea izango dute dirulaguntzak zuritzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa Udal erregistroan aurkezteko:

- Gabonetako kuadrilen arteko saskibalo txapelketa
- Gabonetako futbito txapelketa
- San Silbestre 2024 ixa 2025 herri-krosa
- Burrunda faktoria

Laugarrena.- 2.777.99 €-ko gastua onartzea, 1 0700.481.341.00.04 2024 (283) partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Bosgarrena.- Erabaki hau interesdunari eta Kontuhartzaitza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan."

Oñatin, 2025eko urtarrilaren 7an

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui andrea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Alk Pro Kirol elk diru
CSV/EKS:	SINAc144cf4a-062f-4f82-8ee1-76d1ae608d09

Digitalki sinatua:



Izaro Elorza Arregi
Alkatea
Data: 2025/01/07 15:07:56